



## 2 KIROL-GUNEA

### Lasarte-Oria eta Usurbilgo Udalak bilduko dira

Lasarte-Oriak kirol gune berri baten beharra du. Bide horretan pausoak ematea aldera, Lasarte-Oriako Udala Usurbilgo Udalarekin bilduko da proiektua azaltzeko. Izan ere, Lasarte-Oriako Udalak kirol gune berria eraikitzeko erabili nahi den eremua, Atsobakar auzoko Froilan Elespe parke botanikoaren eta Urbil gune komertzialaren arteko eremua, Usurbilgo Udalarena baita. Usurbilgo Udalak onespenera emanaz gero, proiektuarekin aurrera egingo luke Udal Gobernuak.



## 5-14 INAUTERIAK

### Ederki gozatu dute herritarrek

Ostiraletik igandera, herriko kaleetan giro ederra izan da. Larunbatean, itsasoa iritsi zen Lasarte-Oriara. Larunbatean, konpartsen aurkezpena, desfilea... aitzaki gutxi behar izan zuten herritarrek kalera atera eta gozatzeko. Igandean, berriz, euria lagun Euskal Inauterietako konpartsen txanda izan zen.

**Asteburuko argazki eta irudiak txintxarri.eus atarian eskuragarri**

Enplegu Mahaia sortu du Lasarte-Oriako Udalak. Araudia onartuta dago eta Gipuzkoako Boletin Ofizialak argitaratu du, baina dispozizio fasean dago egitasmoa oraindik, martxora bitartean. Jesus Zaballos alkatearen aburuz, "lan-arloan herritarren parte-hartzea areagotzeko tresna izatea" da eratu berri den proiektuaren helburua.

Lasarte-Oriak langabezia-tasa altua dauka, eta arrazoi horregatik erabaki du Udal Gobernuak erreminta hau sortzea; gure konpetentzien barnean, enplegu-arloan lan egin nahi dugu, esparru horretan herritarren parte-hartzea areagotuz gainera". Jesus Zaballos alkatearen iritziz, sortu berri den egitasmoaren xede nagusia hori da.

Prensaurrekoa eskaini zuten ostiral eguerdian alkateak berak, Sozioekonomia batzordeko buru Beatriz Juezek eta udaleko enplegu teknikari Dioni Avilak, Enplegu Mahaiaren nondik-norakoak azaltzeko.

#### "Ikuspuntu askoren bilgune"

Herrian egoitza duten sindikatuak (LAB, ELA eta UGT), ADEGI, Michelin, Zubigune fundazioa, Emekin Emakume Ekintzaileen ekimena, Lanbide, ASIDEL Lasarte-Oriako Langabeen Plataforma, Aterpea merkatarik elkartea, GUREAK, Gipuzkoako Komertzio Ganbara, Udaleko enplegu teknikaria... izango dira mahaian parte hartuko



Ostiral eguerdian Udaleko enplegu teknikari Dioni Avilak, herriko alkate Jesus Zaballosek eta Sozioekonomia batzordeko buru Beatriz Juezek aurkeztu zuten proiektu berria.

duten eragileak, besteak beste. Zaballosek azpimarratu moduan, "ikuspuntu askoren bilgune" izango da: "Herriko Enplegu Plana eta antzeko ekimenak diseinatzerakoan perspektiba desberdinak entzun nahi ditugu, ahalik eta aberatsenak izan daitezen proposamen horiek".

Era berean, udal korporazioko alderdi politikoko guztiek ordezkari bana edukiko dute. Mahaiko lehendakaria alkatea bera izango da, eta Sozioekonomia Batzordeko buru Beatriz Juezek egingo ditu lehendakariorde lanak.

Enplegu Mahaian parte hartzeko atek "irekita" daukela nabarmendu zuen alkateak, lan-alorrean lan egiten duen herritar zein elkarte ororentzako.

Bilerak egin ostean hartzen diren erabakiak Sozioekonomia Batzordera eramango dira

gero; bertan eztabaidatuko dituzte politikariek eta erabakia hartuko dituzte gero, alkateak jakinarazi zuenez.

#### Udalaren eskumenak

Udalak enplegu-arloan dituen eskumenak "mugatuak" dira, alkateak zehaztu zuenez: "Hainbat alor Gipuzkoako Diputazioak kudeatzen ditu, baina zergen kasuan esaterako, esku hartu dezakegu. Ekimenetako bat izan daiteke enpresentzako interesgarriak izango diren zergak diseinatzea, herrira etorri eta enplegua eskaini dezaten".

Proposamen zehatzak diseinatzen hasi baino lehen, beste zenbait pauso eman behar dituztela aipatu du Zaballosek. Eragile sozial denekin harremanetan jarri behar dute, zehazteko zein izango den aipatu horietako bakoitzaren ordezkari.

#### Aurkako bozkarik ez

Zaballosek eta Juezek azpimarratu zuten oposizioko alderdi bakar batek ere ez zuela egitasmoaren aurka bozkatu, urtarrileko udalbatzarrean gaia eztaibaidatu zutenean. Alderdi sozialistak 2014ko aurrekontuetan Herriko Enplegu Plana diseinatzeko emendakin bat aurkeztu zuela ere esan dute, eta onartua izan zela. Aurreko udal gobernuak urte horretako abenduan atera zuen lizitazioa, "zertxobait berandu", alkate eta zinegotziaren iritziz.

Udaleko enplegu teknikari Dioni Avilaren ustetan, Enplegu Mahaia eratzea "oso aukera interesgarria" da, enplegu sektoreko "ikuspuntu eta ahots desberdinetatik" abiatuz "herriko langabeen alde" lan egiteko eta herriaren azpiegitura ekonomikoa "hobetzen jarraitzeko".



Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Erretiroak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



## KIROL-GUNEAK

# Kirol-gune berria egite bidean

## Atsotakarren gune berria eraiki nahian bilduko dira Usurbilgo eta Lasarte-Oriako Udalak



Kirolgune berria egiteko proiektuan hautatutako lursaila.

**Froilan Elespe parke botanikoaren eta Urbil gune komertzialaren arteko eremua erabili nahi du Lasarte-Oriako Udalak kirol-gune berria egiteko. Usurbilgo lursaila denez, alkate Jesus Maria Zaballos eta hirigintzako zinegotzi Agustin Valdivia bertako alkate Xabier Arregirekin bilduko dira proposamena aurkezteko. Helburu nagusiak lursail horretan futbol zelaia eta atletismo pistak eraikitzea dira.**

**K** irol ekipamendua hobetzeko programaren barnean gune berria eraiki nahi du Lasarte-Oriako Udalak.

Atsotakar auzoko Froilan Elespe parke botanikoaren eta Urbil gune komertzialaren arteko eremua erabili nahi du horretarako.

Usurbilgo Udalarekin bile- ra egingo dute hurrengo egunetan. Lursailaren jabetza euren da eta, beraz, haiekin akordioa lortu beharko dute proiektua aurrera eraman ahal izateko.

### Futbol zelai berria

Helburu nagusia Atsotakarren futbol zelai berria eraikitzea da. Herriko talde ugari erabiltzen du Mitxelingo, eta

ordutegiak banatzea ez da erraza izaten.

laz egin zuen Lasarte-Oriako kirol egoeraren diagnostikoa Udalak, eta gune gehiago behar zituztela ondorioztatu zuten talde gehienek.

Futbol zelaiaren inguruan, harmailak jartzeaz gain, atletismoko pistak ere jarri nahi dituzte Atsotakarren. Hala, Mitxelingo eremuan kiroldegi berria egingo lukete etorkizunean.

Izan ere, Udalaren ustez, egungo kiroldegia zaharkituta geratzen ari da. Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol ordezkarri Denis Itxaso bertan bisitan izan zen urrian. Adierazi zuen "bazitekeela kiroldegia bere bizitzaren amaierara iritsi izana, eta laguntza tekniko

eta ekonomikoak emateko aukerak" aztertuko zituztela.

2016ko aurrekontuetan kiroldegi berriaren diseinua kontuan hartuko zutela nabarmendu zuen Jesus Maria Zaballosek.

Udal ordezkariak azaldu dute herritarren "nahia" beteko dutela proiektu hau aurrera eramatean.

### Baimenaren zain

Esan bezala, proiektua Usurbilgo Udalari aurkeztuko zaio, eta haiek eman beharko dute hurrengo urratsa.

Baimena emanaz gero, aurrera jarraituko luke proiektuarekin Lasarte-Oriako Udalak.

Ez dute datarik zehaztu oraindik, lursaila erabiltzeko baimena ezinbestekoa baitute edozein obra egin ahal izateko.

Diseinua eta burutu beharreko obraren esleipena zehaztuko lituzkete ondoren. Edonola ere, epe ertainean ekingo liokete kirol-gune berria eraikitzeari.

## UDALAREN 30. URTEURRENA

### Aldez aurretik eskuratu beharko dira Urteurreneko ekitaldirako gonbidapenak

Larunbatean ekitaldi berezia egingo dute Manuel Lekuona kultur etxean Lasarte-Oriako udalerrri bezala 30 urte beteko dituela eta. Sarrera doakoa izango da, baina gonbidapenak kultur etxean eskuratu beharko dira gaurtik larunbatera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Julian Sagardiaren argazki bilduma eta Zero Sette orkestrak lagundutako diaporama ikusi ahal izango dira.

## UDALBATZARRA

### Bost gai eztabaidatuko ditu bihar udalbatzarrak, hileroko ohiko saioan

Ohiko bilkura egingo du udal korporazioak bihar, 18:30ean. Aurreko sesioetako aktak onartzeaz gain, bost gai eztabaidatuko dituzte.

Lasarte-Oriako Ahal Du-k "Garoñako zentral nuklearra ez dezatela berri zabaldu" mozioa aurkeztu du, batetik. PSE-EEK, berriz, "pobretasun energetikoaren kontra borrokatzeko neurriak" plazaratu ditu. Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 40. urteurrena ere jorratuko dute. "Elebeltzen inguruan Alkateak hartutako neurrien" inguruko mozioa landuko dute, ondoren. Azkenik, LOAD alderdiak aurkeztuta, "Correscales prekaritatearen kontrako Korrika ekimenari buruzko" mozioa eztabaidatuko da. "Movistarrentzat lang egiten duten teknikarien aldarrikapenekin elkartasuna erakusteko helburuarekin" antolatutako ekintza da.

## TAILERRA

### Aniztasunari eta hizkuntzari buruzko tailerra asteazkenean

Asteazkenean Villa Mirentxun aniztasunari eta hizkuntzari buruz gogoeta egiteko aukera bikaina izango da arratsaldeko 18:30ean. Lasarte-Oriako hitz egiten diren hizkuntza ezberdinen inguruan arituko dira tailerrean. Haien aurrean ditugun portaerak aztertuko dituzte, besteak beste.

## CACERESERA BIDAIA

### Maiatzaren 20tik 29ra Caceresera bidaiari antolatu du jubilatuen etxeak

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Cacereserako bidaiari antolatu du maiatzaren 20tik 29ra. Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute astelehenetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

## ZOZKETA

### Bi bizikleta zozketatu ditu PSE-EEK jostailu bilketako laguntzaileen artean

Gabonetan jostailu bilketan lanean aritu ziren lasarteoriatarren artean bi bizikleta zozketatu zituen Lasarte-Oriako PSE-EEK. Aurtengo saridunak Ian eta Aray dira, eta jadanik jaso dute saria idazkari orokor Jesus Maria Zaballosen eskutik. Sarituak pozarren atera zuten argazkia euren bizikletekin.

Bestalde, PSE-EEK eskerrak eman nahi dizkie bilketan lagundu zuten lasarteoriatarrei, ume lasarteoriatar askorentzako mota guztietako jostailuak lortzeagatik.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

### Laguntzailea



### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 371 448**  
G-20407557

### Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

### txintxarri

#### Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,  
Iñigo Gonzalez.

**txintxarri@txintxarri.eus**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.eus**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maider Seguro,  
Gorka Alvarez, Jexux Artebe,  
Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

## PADELA.-

# Gaur hasiko da herriko II. Padel txapelketa

Emakumezkoen ligaxka ere osatu dute aurten; zazpi bikotek hartuko dute parte bertan

**Berrikuntza ugarirekin dator Lasarte-Oriako Padel txapelketaren II. edizioa. Besteak beste, aurten emakumezkoen ligaxka ere osatu dute; zazpi bikotek hartuko dute parte horretan. Denera, 39 bikotek eman dute izena, lehiaketa mistokoak kontutan hartuta. Kiroldegi alboko padel pistan jokatu dira partidu guztiak; finalak ekainaren 4an izango dira, larunbatez.**

**B**ulego-lana amaituta (ins-kripzioak egin, norgehiagoken egun eta ordutegi guztiak koadratu, etab.), erraketa eskuan hartu eta pilota astintzeko ordua dute herriko padel txapelketaren II. edizioan izena eman duten 39 bikoteek. Horietatik 32 lehiaketa mistoan ariko dira, eta beste zazpiak emakumezkoen ligaxkan. Hori da 2016ko edizio berrikuntza nabarmena, antolatzaileen esanetan.

Astelehenetik larunbaterainokoak izango dira jardunaldiak; 19 partidu jokatu dira horietako bakoitzean. Finalak berriz (txapeldun zein kontsolazio fasekoak), ekainaren 4an jokatu dira, printzipioz.

Formatuak ez dauka misteriorik. Txapelketa mistokoek ligaxka jokatu dute aurrena,

itzuli bakarrera; bikote bakoitzak bide bat hartuko du ondoren, lortutako emaitzen arabera: txapeldunen fasea edo, bestela, kontsolazioa. Emakumeen ligaxkan aritzen direnek berriz, joaneko zein itzuliko partiduak jokatu dituzte. Ondoren, lehenengo lau sailkatuak finalurrekoetarako sailkatuko dira; ekainaren 4ko finalerako txartela lortzen saiatuko dira erronda horretan.

## Bikote kopuru bikoitza

Gero eta jende gehiagok jokatzen du padelean. Herrian bai behintzat. Datuek erakusten dute: iaz 20 bikote apuntatu ziren, eta 39 aurten. Beraz, parte-hartzaile kopurua kasik bikoitza egin da.

Antolatzaileek "pozarren" hartu dute izen-emateen igoe-



Eli Iradik eta Jon Esnalek (eskubian) irabazi zuten iazko Padel txapelketa.

TXEMA VALLÉS

ra. Nabarmendu dute herrikoak direla gehienak, baina inguruko herrietako jokalariek ere animatu direla: Urnieta-koak, Astigarragoak...

"Oso aho-zapore ona" utzi zien aurreko edizioak antolatzaileei. Hori errepikatu gura dutela diote: "Dena primeran irten zen; hala jakinarazi ziguten behintzat jokalariek guztiek. Aurtengoan ere horrela izatea nahi dugu".

Ordutegi eta norgehiagoka guztiak koadratzeak eman dizkie buruhauste gehien: "Mirariak egin behar izan ditugu ia, baina azkenean moldatu gara nola edo hala".

## Padel pista berritua

Azaro hasieran padel pistako zorua aldatu eta berria jarri zuten Udalak. Antolatzaileen aburuz, "beharrezkoa" zen moldaketa egitea, aurrekoa

"oso erabilia" zegoelako jada. 2011ko urtarrilean inauguratu zuten kantxa.

Gaur inauguratuko dutena II. Padel txapelketa izango da. 17:30ean Iñigok eta Mikelek Fernando eta Peñaren aurka jokatu dute; 19:00etan Alex eta Iñakik Karmelo eta Pedoren aurka neurtuko dituzte indarrak. Azkenik, 20:30ean, Alvaro eta Cesar Xabi eta Aitorren aurka ariko dira.

## SASKIBALOA.-

## Junior neskek pausoz pauso

**O**stadar SKTko Junior taldea ederki dabil Euskal Ligako bigarren multzoan. Atletico San Sebastian taldearen aurka lehen partida irabazi ostean, aste honetan ere garai-pena erdietsi du etxean, 66-64.

Ander Otaegiren neskek hurrengo ikasturtean Euskal Ligan mantentzeko pausok ematen ari dira. "Bi partidak irabazi dituen talde bakarra gara. Beraz, oso ondo goaz. Fase honetan lehenengo edo bigarren geratzea da helburua eta horrela, mailari eutsiko genioke," adierazi du Ostadarreko entrenatzailek.

## Partida berdindua

Gasteizko San Viator taldea izan zuten Ostadarreko neskek aurrez aurre. "Uste baino hobeagoak ziren," onartu du Ander Otaegik.

Bi taldeak indartsu atera ziren garaipenaren bila. Lehen zatian, Ander Otaegiren neskek tarte txikia ireki zuten. Baina ezin izan zituz-



Ederki borrokatu beahr izan zuten junior neskek garaipena lortzeko.

ten arerioaren erasoak gelditu eta berdinketa lortu zuten gasteiztarrek.

Partida oso berdin mantendu zen, herriko taldeak indarrak hartzen zituen eta gasteiztarrek berdintzea edo markagailuari buelta ematea lortzen zuten. "Momentu batean hiru hiruko jarraian sartu zituzten".

Azken minutura arte mantendu zen berdinketa eta

orduan Ostadarrek saskiratzea egin eta puntuak etxean gertatu ziren.

## Hurrengoa ere etxean

Hurrengo asteburuan ere, maila honetako partidaz gozatu ahal da kiroldegian, Getxo taldearen aurka jokatu dute herritarrek. "Partida borrokatua izango da hori ere, aste honetan garaipena erdietsi dute," azaldu digu entrenatzaileak.

## PIRAGUISMOA.-

## Maialen Chourraut piraguista, sariz sari

Sariak pilatu eta pilatu ari da Maialen Chourraut azkenaldian. Hiru jaso ditu azken bi asteetan: 2015eko Emakumezko piraguista onenarena, RFEP Espainiako Piraguismo Federazioaren eskutik; Deia egunkariak pasa den urteko euskal kirolari onenarena eman dio eta, azkenik, Sabino Arana Fundazioak ere aitortu du herriko piraguistak egindako lana.

Besteak beste, K1 modalitateko Europako txapeldun izan da Chourraut 2015ean, brontzezko domina jantzi du Rio de Janeiroko kanalean egindako test proba batean eta Rioko Olinpiar Jokoetarako plaza bermatu du, Londresko Munduko Txapelketan bosgarren denbora onena eginda.

Etorkizunera begira, hainbat erronka ditu piraguistak. Lehenengo, Rio de Janeiro (Brasil) uda honetan egingo diren Olinpiar Jokoetarako txartela eskuratzea. Martxoan sailkapen-fasea jokatu du herritarrek, bi asteburutan zehar, beste hiru piraguistarekin batera: Marta Martinezekin, Irati Goikoetxearekin eta Nuria Vilarrublaekin, hain zuzen.



Azkeneko bi asteetan hiru sari jaso ditu Maialen Chourrautek.

RFEP

David Sanchez Carretero Urpekaria

# “Hegan egitea bezala da”

Bizitza esperentziaz betetzea du helburu Davidek, *desdedentro.net* blogean erakusten ditu

*David Sanchez Carretero herritarraren ‘Motivos para bucear en el Cantábrico’ film laburra ikusi ahalko da gaur arratsaldeko 19:30ean Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan. Davidekin bildu gara film laburra aitzakia, baina urpekaritzaz eta desdedentro.net blogari buruz ere mintzatu gara.*

Nerea EIZAGIRRE

**D**avid Sanchez Carretero beti izan zuen urpekaritza egiteko gogo, baina lana dela, haurrak direla... alde batera uzten joan zen. Duela zortzi urte emaztea hil zenean, probatzea erabaki zuen eta bataio bat egin zuen. Ostean, lehen izarra eskuratze-ko ikastaroa egin zuen oinarritza, Real Sociedad taldeko itsaspeko ataleko kide egin eta hortik aurrera itsaspean dabil ahal duen guztietan.

## Zergatik zaletu zara urpekaritzaz?

Urpekaritzak engantxatu ninduen gaur egun estres eta erritmo biziko gizarte batean bizi garelako.

Itsasoan sartzean guztia geratzen dela dirudi. Prestaketatik hasita, guztia ongi egin behar duzu, behar duzun denbora hartu. Sartzean, ez zara kanpokoaz gogoratzen, zure arnasa sentitzen hasten zara eta nahi dezun sakoneran mantentzen saiatzen zara.

Askok esaten dugu hegan egitea bezala dela. Grabitaterik eza sentitzen duzu eta hegada batzuk eman eta alde batera zoaz, gora edo behera.

Dena lasaiagoa da, baina liluragarria da. Inoiz ikusi ez dituzun espeziak zure aurrean izatea oso polita da.

Gainera, lagun bati esker, ‘Pumuki’-ri esker, askotan murgildu naiz Kantabrikoan. Nire kidea izan da urperatze guztietan eta berak dakiena irakatsi dit, nik itsasoaren irakaslea dei-

tzen diot. Askok daki eta ongi irakasten du eta horregatik asko gozatu dut.

## Zergatik hasi zinen urperatzeak grabatzen?

Uretik ateratzen nintzen bakoitzean nuen sentsazioa oso bizia zen, baina jendea hori azaltzea zaila zen.

Ni beti izan naiz guztia grabatzekoa. Pertsonalki asko gustatzen zait bideoak editatzea. GoPro bat erosi nuen, ez da profesionala.

Horrekin grabatu, editatu eta musika jarritz, film laburrak egiten saiatu nintzen. Intentsioak izatea ere bilatzen nuen, izan ere, itsasoa interesgarri ez deritzonari ere gustatzea nahi nuen.

Horrela, nik sentitzen nuen jakinarazi dezaket eta jendea animatu urpekaritzan trebatzera.

## Blog bat ere egin duzu zuren lanekin?

Esperientzia berriak bizitzea izan da *desdedentro.net* blogaren sorreraren oinarria. Urteak igarotzen dira, baina esperientziak dira bizitzan aldaketak sortzen dituztenak.

Getaria Zarautz trabesiaren garaia zen bizitza jarrera berri hau hartu nuenean. Aurretik egindako proba nuen, baina kamerarik gabe eta urte horretan kamarekin egitea erabaki nuen.

Prestaketa irudiak, trabesia, ondorengo irudiak eta bertatik atera zen *desde dentro* kontzeptua, bideo horren izena ‘Getaria Zarautz desde dentro’ zelako.



David, eskubitan, eta Daniel Landa 'Pumuki' urperatzeko prest. DANIEL LANDA

Blogaren izena izateaz gain, bizitza filosofia bat ere bada niretzat.

Horri esker gauza asko egitera edo ekimenetan parte hartzera behartzen dut nire burua. Horren adibide, aurten egin den I. San Silvestrea da. Komunikazio arloan laguntzen egon naiz, karteletak, sare sozialak... eta egunean bertan bideoa grabatu nuen. Hau editatu, jendearen eskura jarri eta harrera ederra izan zuen. Lan handia izan zen, baina pena merezi izan zuen eta hurrengo urtea iristeko irrikitan nago.

## Zarautz-Getaria trabesia aipatu duzula, honek zure irudiak pantaila handia ikustea ahalbidetu dizu, ezta?

Bai, nire irudiak film dokumental batean erabili dituzte.

Zarautz-Getaria batean, ikusi nuen gurgindun ahulkian zihuan pertsona bat grabatzen ari zirela. Trabesia amaitzean, interneten sartu eta *Diario de Navarra* berri bat aurkitu nuen, non documental baten

grabaketari buruz hitz egiten zen, ‘180 grados rumbo a la luz’.

Hiru pertsonatan zegoen oinarritua eta bata nik Zarautzen ikusitakoa zen, Antxon Arza. ‘Al filo de lo imposible’ programan ibilitako zen. Kayak egiten urjautsi batean harri ba jo eta gurgindun ahulkian geratu zen.

Nafarroako enpresa bat zen grabaketa egiten ari zena eta haiekin jarri nintzen harremanetan nik trabesiako urpeko irudiak nituela jakin arazteko. Interesa izan zuten eta batzuk bidali nizkien. Toma batzuk hartu eta dokumentalean txertatu zituzten.

## Baina aurretik Donostiako Zinema Zikloan ere ikusi zen iaz zure lanetako bat, ezta?

Bai, horrela da. Hurrei urpekaritza bataio bat oparitu nien. Ni Real Sociedad taldeko itsaspiko ataleko kide bezala parte hartu nuen honetan eta grabatu ahal izan nuen.

Montajea egitea ongi iruditu

zitzaidan eta nire lagun batekin, Karlos Zabala musikariarekin hitz egin nuen irudiei musika jartzeko. Abesti bat ari zen konposatzen eta nik gauza batzuk iradokita ‘El regalo que siempre recordaran’ izena zuen film labur horrek eta urpekaritza ikastaro hori nolakoa zen aurkezten nuen. Helburu ezberdinak zituen batetik orogarri polit bat zen eta bestetik jendea horrelako ikastaroak haurrek ere egin ditzaketela erakustea.

Ziklora aurkeztu nuen eta aukeratu izan zen. Antzoki Zaharrean izan zen emanaldia.

Eta iazko Lasarte-Oriako zikloan ere ikusteko aukera izan zen. Baina lanegatik ezin izan nintzen egon, badakit jende asko hurbildu zela. Pena eman zidan.

## Gaur ere zure lanetako bat ikusiko da Lasarte-Orian. Zer erakutsiko duzu honetan?

Haurrengatik eta lanarengatik ezin naiz Indonesiara edo horrelako lekuetara joan eta horregatik Kantabriko aldean egin ditut nire urperatze gehienak. Nahiz eta arriskutsuenetarikoa den, nahasia da, mugimendu askokoa eta ez du atsedunik ematen, baina ni liluratuta nago bertan aurkitzen ditudan gauzekin

Horregatik, bideoak Kantabrikoan ikusteko gauza oso politak daudela ohartarazteko balio du. Bertakoei eta kanpokoie ere zuzendua da. Ze bertakoei ere ez dute hor hondoan dagoena ezagutzen.

Kostatik pixka bat urrunduz bost-hamar metrotako jaitziera duzu eta olagarroak, txokoak edo ikaraioak aurkitzen dituzu. Liluratzen duten gauza asko dago.

Bideo dinamikoa da. Ez dira bakarrik espezieak ikusten, gure irudiak ere badaude, presaketak, ur azpiko irudiak... Grabaketak momentuan momentuko argiarekin edo foko txiki bat jarrita egindakoak dira, ez da bestelako gauza.


Bideo hau ezin izan da aurtengo Donostiko Zikloan sartu, kalitate handiko filmak egon direlako. Baina Lasarte-Oriako zikloan sartuko zela esan zidaten ataleko kideek.

## Beraz, herritarrak animatuko zenituzke zikloa ikustera?

Bai noski. Zikloan lan ikusgarriak daude eta kalitate handikoak. Ordu askotako grabazioa dago. Ur azpian grabaketa egitea ez da erraza. Animalia bat aurkitu eta grabatzeko ordu asko egon zaitezke zain.



David bere kamararekin itsaspean aurkitzen duen oro grabatzen du. Bigarren izarra eskuratu du eta hurrengo erronka gaueko animaliak grabatzea izango da.





# Itsasoaren eztanda!!



## MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Ordutegi malgua daukagu  
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria  
Tel. 943 37 08 45

*San Valentin  
honetan, gutizia  
oparitu*

Zatoz eta opari txartela  
prestatuko dizugu ezusteko  
polit bat eman diezaiozun  
zure bikoteari:

- Zure aurrekontura egokitutako opari-txartela egingo dugu
- Tratamenduak, estetika zerbitzuak... edo berak aukeratu dezala!
- Estetika zerbitzu mistoak eskaintzen ditugu



Urpeko bereziak iritsi ziren Sasoeta-Zumaburu ikastetxera.



Haur eta gurasoek kolorez bete zuten Landaberi Garaikoetxea ikastolako patioa kalejira handia eginez.



Euskal Inauterietako doinuak ederki dantzatu zituzten Landaberriko txikiek.



Landaberi LH-ko gazteek Euskal arrantzaleen istorioa antzeztu zuten.

## Ikastetxeak Inauterietan blai

Ikasleek ederki gozatu zuten senideei dantza eta antzezlanak erakusten

*Piratak, surfistak, itsasoko animaliak, euskal arrantzaleak, txantxoak... Lasarte-Oriako ikastetxeetara ostirala arratsaldean iritsi ziren Inauteriak. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak eta Landaberi LH-k herriko gaiarekin bat egin zuten eta itsasoa izan zen protagonista. Landaberi Garaikoetxeako txikiek, aldiz, Euskal Inauteriak ospatu zituzten. Dantza, antzerkia eta musika izan ziren nagusi.*

ko talka antzeztu zuten. Bukaeran, nola ez, Miel Otxin erre zuten.

Jaialdiari amaiera emateko, gurasoak festara gehitu ziren eta kalejira erraldoia osatu zuten denen artean.

### Inauterien olatua Landaberi LHn

Irudimena itsasoko ura bezain fresko dutela erakutsi zuten Landaberi LHko ikasle eta irakasleek ostiral arratsaldean: piratak, euskal arrantzaleak, itsasoko animaliak, bikingoak, surfistak, Titanic ontzi mitiko-ko tripulazioa eta bidaiariak... Mota guztietako mozerroak soinean, emanaldi bizi eta koloretsua eskaini zuten gimnasioko ikusleen aurrean.

Gelaz gela eta mailaz maila, ikasle denek hilabeteotan entsegatutako koreografiak dantzatu zituzten. Festari amaiera ezin hobea emateko, ikasleek kuttunena duten dantza: irakasleena. Euskal piratak irudikatu zituzten, eta altxorren bila abiatu ziren eta ikasleekin batera dantzatu zuten bukaeran.

### TXINTXARRI

Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoek ostiral arratsaldean eman zieten hasiera Inauteriei. Gelan edo etxean prestatuko mozerroak soinean bereziki prestatutako dantza edo antzerkiak eskaini zizkieten senideei.

### Itsasoa dantzan

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-ko txiki zein gaztetxoak Sasoetako eraikineko patioan bildu ziren.

Itsasoa gaia izaki, karra-marro, olagarro, itsas-izar, pirata, sardinera, arrantzale eta urpeko ontzi berezi batzuk izan ziren bertan.

'Under the sea', 'Piratas del Caribe', sardinera dantza

edo 'Yellow submarine' doinuen erritmoa jarraikiz talde ezberdinek haien emanaldia eskaini zuten.

Saioari amaiera emateko 'Parabara' dantza ere egin zuten.

Ostean, txokolate janaz gozatu ahal izan zuten guztiek.

### Euskal Inauteriak

Lantzeko inauteriak eredu, Landaberi-Garaikoetxea ikastolako ikasleak Txantxoz mozerrotu ziren, eta Ziripot eta Miel Otxin ere bertan izan ziren.

Euskal dantza ugari egin zituzten guraso eta lagunaren begiradapean.

Ohi bezala, ilargiaren eta eguzkiaren jarraitzaileen arte-

## Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Barruko berrikuntzak

Estalkien berriztatzeak

Gremioen koordinaketa

 606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

[josueigeltseritza@euskalnet.net](mailto:josueigeltseritza@euskalnet.net)





Saota-Zumaburu ikastetxean piratak izan ziren dantzan.



'Under the sea' doinuaren erritmoak itsaspeko animali andana ekarri zuen Saota-Zumaburu ikastetxeko patioa.



Euskal Dantzetan trebe zirela erakutsi zuten Landaberriko txikiek.



Egtuzkia eta ilargiaren jarraitzaileen borroka antzestu eta Miel Otxin erre zuten Landaberri Garaikoetxean.



Landaberri LH-ko pirata bereziak altxorraren bila ibili ziren.



Titanic ontzia eta bere protagonistak ere izan ziren Landaberri LH-ko jaialdian.

aldizkariak  
esku-orriak  
kartelak  
liburuak  
egutegiak  
katalogoak  
papeleria  
agendak  
koadernoak  
karpetak  
logotipoak

**INPRENTA**  
**DISEINU**  
**GRAFIKOA**  
**DISEINU**  
**EDITORIALA**

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 **LASARTE-ORIA**  
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus  
www.antza.eus



Zabaleta auzoko euskal piratak izan ziren lehenak oholtzara igotzen.



Eguraldia lagun, herritar ugari bildu zen konpartsen aurkezpena ikustera.



Zentro zibikoko surflariak ederki egin zuten dantza.



Larramezndizaleak taldeak antzerkia eta dantza nahastu zituzten.

## Itsasoko koloreek Lasarte-Oria eraldatu zuten

### Konpartsek eta herritarrek ederki gozatu zuten larunbatean Inauterietako egitarauaz

**Eguraldia lagun, herritarrek eguerdia baino lehen bete zuten plaza. Pirata, arrantzale, eskimal, itsasoko animali ugari eta hainbat filmeetako pertsonaiak ere. Bazkaldu ondoren, Okendo plazan batu eta desfilea egin zuten erdialdeko kaleetatik barrena. Herritar ugari hurbildu zen haiek ikustera. Gauean, euriari aurre eginez, Djaren erritmora edo tabernaz tabena ibili ziren koadrilak.**

tan Oaintxe in deu!! txarangak girotutako pintxo potea egin ahal izan zuten.

#### Lehiaketa

Konpartsen karroza lehiaketa eta mozorro lehiaketa ere egin ziren.

Konpartsa onenaren saria Larramendizaleak taldeak eraman zuen. Mozorro lehiaketa berriz, lehengo mendeko urpekari bikote batek.

Jarraian, bazkari herrikoia izango zen Antonio Mercero plazako karpan.

#### Bingoa

Antonio Merzero plazako karpan izan diren herritarrek bazkal oste ederra izan zuten, Gazte klubeko gaztetxoan Super Bingoa. Oparia, gozo-eltzeak.

Bingoa amaitzean, gaztetxoek izan zuten aukera gozo-eltze bat ere puskatzeko. Hainbat saiakeren ostean, hau puskatu eta goxokiak lortu zituzten

#### TXINTXARRI

Larunbata eguerdirako minutu gutxi falta zirela, joan zen plaza konpartsez eta herritarrez betetzen. Intzak Parranda konpartsa lagunak izan ziren aurten Inauteriei hasiera eman ziotenak. Haien gidaritzapean, banaka gainontzeko konpartsak, ttakun ez ezik oholtzara igo eta ekitalditxo bat egin zuten.

Zabaleta auzoko euskal piratak, Zentro Zibikoko surflariak, Tekilak konpartsa Nemo eta bere lagunak, Naste Borrasteko urpekariak, Larramendizaleak konpartsa-

ko arrantzaleak, Jalguneko lagunak Donostia 2016, Intzak Parrandako lagunak itsas hondoa, Elkarreko lagunak ipar poloko eskimalen dantzak eta Erketzen marmokak izan ziren protagonistak.

Baina plazan beste hainbat mozorro ere ikusi ahal izan ziren, hala nola, hondartza zale, turista, sare konpontzaileak, sevillanak edo arraunlari eta Michelin taldeko trainerak.

Ekitaldia ikusten ari ziren lagunak gainera, sagardo barrikoteaz gozatzeko aukera izan zuten.

Plazara hurbildu ez zirenek herriko hainbat taberne-



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

✓ Odolkiak

✓ Solomo antzutua

✓ Etxeko txorizoa

✓ Basurde burua

✓ Txistorra

✓ Solomoa baratxuritan

✓ Tripakiak, saltxitxak...

✓ Baserri pateak





Mozorro lehiaketara aurkeztu ziren herritarrak. Irabazlea lehengo mendeko urpekari bikotea izan zen.



Txotx egiteko aukera ere izan zen Okendo plazan.

**Desfilea**

Bien bitartean, konpartsak desfilerako prestatzen joan ziren.

Larramendizaleak, Zabaleta auzoko kideak, Zentro zibikoko emakumeak, Tekilak, Nahaste Borraste, Jalgune, Ttakun, Intzak Parrandan, Elkar eta Erketz izan dira haien doinu eta dantzekin erdialdeko kaleak girotu zituzten taldeak.

Piratak, urpekariak, egiptoarrak, surflariak...desfilea ikusten ere gazte zein heldu talde mozorrotuak izan ziren. Herritar ugari bildu zen kaleetan batez ere, Kale Nagusi, Geltoki kalean eta Okendo plazan. Konpartsen erritmora dantza egin zuten askok. Elebeltz Topagunearen aldeko batukadak ere bat egin zuen desfilearekin une batean.

Desfilea amaitzean, Zabaleta auzoko lagunek antolatutako txokolate janaz gozatu ahal izan zuten konpartsetako kideek.

**Gaua dantzan**

Dantza egiteko gogoekin geratu zenak ere, Bide Batez taldearen eskutik jaia jarraitzeko aukera izan zuen.

Gauean ere, Antonio Merzero plazako karpan DJ Jotaxo izango zen eta hainbat ziren dantza egitera hurbildu ziren gazteak.



Jalguneko lagunek Donostia 2016 emanaldia eskaini zuen.



Elkar taldeko gaztetxoek gorputzean erritmoa dutela erakutsi zuten.



Oaitxe in deu!! txarangak girotuta pintxo potea egin zuten askok.



Haurrek ederki gozatu zuten goizeko ekitaldiarekin. Amaieran, goxokiak izan zituzten.

# Fernández

## ehunak

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Kale Nagusia 2  
Tel. 943 36 16 07  
LASARTE-ORIA

## NOAOA BIDAIAK

BIDAIATZEN LAGUNTZEN DU

GREZIETAKO IRLETARA KRUZEROA

IRTEERA: 2016ko irailaren 12an Lasartetik

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA

# 943 373 613

info@noaoabidaiak.com

eskeintza gehiago: [www.noaoabidaiak.com](http://www.noaoabidaiak.com)  
HIPODROMO ETORBIDEA 10 - 20160 LASARTE-ORIA, GIPUZKOA



Gazte Klubeko lagunek Super Bingoa egin zuten bazkalostean. Antonio Merzero karpan zeudenek ederki pasa zuten.



Tekila konpartsako Nemo eta bere lagunak desfilean goxokiak botatzen egon ziren.



Intzak Parrandan taldeko itsas hondoko lagunak ederki gozatu zuten desfilean.



Herritar ugari hurbildu zen erdialdeko kaleetara desfilea ikustera. Gehienak mozorrotuta atera ziren kalera.



Elebeltz Topagunearen aldeko batukada bat ere izan zen herriko kaleetan eta desfilearekin bat egin zuen momentu batean.



Nahaste Borrasteko usrpekari martxosoek ez zuten erritmoa galdu.



Whatsapp berria daukagu: 600 857 586  
www.electricidadarregui.com



**GARBIGAILU  
ERAKUSKETA BERRIA!**  
Eskaintza zabala, dendan bertan ikusgai

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



**ZARTAGI  
PROMOZIOA**  
Beharpenak mota ezberdinetako zartagietan

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Ttakuneko Kuadrillategi eta Gazte Klubeko gazteak ere desfilean izan ziren.



Zabaleta auzoko eta Barrenetxe okindegiaren eskutik txokolate jana goxoa izan zen desfilea amaitzean.




Antonio Merzero plazako karpan Bide Batez taldeak erromeria ederra egin zuen.



Erket EDT-ko lagunek euskal dantzak eta egungoak nahastu zituzten desfilean.



Afalostean, DJ Jotaxo izan zen Antonio Merzero karpan eta gazteak dantzan jarri zituen bere erritmo eta doinu nahasketekin. Giro paregabea izan zen karpan, kanpoan berriz, euria.

**Carrefour  
express**

*Eguerdian ere zabalik!*

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



Lasarteoriarrek eta zubietarrek zenbait dantza egin zituzten batera.



Hartzari su emanez bukatu zen jaia.



Karroza matxuratu egin zen eta Ttiriki Ttarraka-ko trikiritxa eta panderoek girotu zuten desfilea

## Suak eman zion amaiera Euskal Inauteriei

### Konpartsako kideek kaleak alaitu zituzten

***Euskal Inauteriek Lasarte-Oriako mugak gainditu zituzten eta Zubietatik Lasarte-Oriara egin zuten bidea. Hipodromoko zubian egin den senidetzearen ostean, zubietarrak eta lasarteoriarrek herriko kaleetan barrena dantzatu ziren. Okendo plazan, hartzaren erretzearekin amaitu zen jaia.***

kal dantza egin zituzten konpartsako txantxoek Hipodromo etorbide eta Kale Nagusian.

Bertan izan ziren hartza eta bere zaintzaileak dantzari, zein herritarrei ziria sartzen.

#### TXINTXARRI

**A**tzerapen txikiarekin hasi zen Zubietan Euskal Inauterietako egitaraua. Zubietarrek musikarien doinuak jarraikiz, dantzaldi txikia egin zuten, hala nola, zazpi jauzi edo Egi dantzatu zituzten.

Gorputza berotu ostean, Lasarte-Oriara bidea hartu zuten Zubietako lagunek.

#### Senidetzea

Lasarteoriarrek zain zeuden Hipodromoko zubian eta bertan harrera beroa egin zieten 'ongi etorri' dantza bat eskainiz. Era

berean, zubietarrek beste dantza batekin erantzun zuten.

Ongi etorriaren ostean, guztiek batera txokolate janaz gozatu zuten.

Karrozarekin arazo txiki bat izan eta honek ezin izan zuen aurrera jarraitu.

#### Desfilea

Indarrak berreskuratu eta musikariak oinez zihoztela, Euskal Inauterietako konpartsa Hipodromoko zubitik atera zen Lasarte-Oriako erdialdeko kaleetan barrena ibiltzeko.

Ttiriki Ttarrakako lagunak musikaren erritmora hainbat eus-

#### Sua

Okendo plazara iritsi eta hainbat dantza egin ostean, suaren ekitaldia egin zen.

Hartzak ihes egin, hau harpatu eta erre zuten zaintzaileek. Ostean, sorgin dantza, fandangoa eta arin-arina dantzatu ziren.

Jaiari amaiera emateko, hurrengo urtera begirako lanetan herritarrek parte hartu dezaketela gogoratu zuten antolatzaileek.

Honetaz gain, zubietarrek eskerrak eman zituzten eta hurrengo urtean, Lasarte-Oriatik Zubietara egiteko gonbita luzatu zuten.



Hartza barrabaskerietan aritu zen desfilean eta zaintzaileak arazoak izan zituen kontrolatzeko. Bestalde, Zubietako lagunei txokolatada beroarekin egin zitzaizen harrera.



Okendo plazan ere dantza ugari egin zituzten Ttiriki Tarraka-ko lagunak lagunduta



Goiko argazkian, Zubietako lagunak talde argazkia eta behean maltzurkeriatan ibili ziren hartza eta haren zaintzaileak.



Herritar ugari gerturatu ziren dantzak ikustera

Zubietarrak dantzan eta kalejiran irten ziren plazatik.



Lasarteoriarrek zubian itxaron zuten zubietarren etorrera. Herriko kaleetan zehar desfilatu ondoren, Okendo plazan bukatu zuten ekitaldia, hartza erreaz.





hartz klinika · clínica dental



RPS: 233/13

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziakoa 18 hilabete arte

Deitu  
gure zerbitzua  
ezagutzeko:  
**943 366 377**

Aldaz Hartz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

BERRIA!
San Franzisko kalea, 39  
Tolosa 20400

Ola kalea, 10  
Lasarte-Oria 20160

San Bartolome, 22  
Elgoibar 20870

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



Okendo plazan Ttiriki Ttarrakako txikiek ederki astindu zituzten panderoak; beste batzuk berriz, ederki astindu zituzten,



Hartza harrapatu ostean, erre egin zuten suaren ekitaldian.



Lasarteoriarrek eta zubietarrek batera herriko kaleen dantza egin zuten.



Zubieta eta Lasarte-Oria arteko bidean dantza etorri ziren zubietarrak.



Kale Nagusia eta Ola Kaleko biribilgunean buelta eman zuen desfileak.



Txantxoak, hartza eta honen zaintzaileak izan ziren protagonistak Euskal Inauterietan.



Ttakun Kultur Elkartean inauteriak primeran pasa izana espero dugu.

**ESKERRIK ASKO PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI!!!**



## Agenda

Gaur, astelehena, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



DANIEL LANDA

### Itsasazpiko bizia ezagutzen

Danok Kide elkarteak Real Sociedad taldeko itsaspeko sailaren laguntzaz Itsaspeko zinema zikloa antolatzen du. Zikloko lehen saioan, 'Creemos en cero', 'Carmen', 'El arrecife de coral', 'Endless' film laburrak eta 'El legado de las rias gallegas' film luzea ikusiko dira, baita David Sanchez Carretero herritararen 'Motivos para bucear en el Cantábrico' film laburra ere.

Igandea 14, 19:30ean

Helduentzako zinea atalean, 'La quinta ola' filma ikusgai. Sarrera, 5, 50 euro.

### Bertsoak

ABEND KAFE ANTZOKIA

Igandea 14, 19:00etan

'Ez gara Palestinaz ari'-ren emanaldia. Xumela koruaren 10. urteurrenaren ekintzen barruan. Sarrera, 5 euro. Abend Kafe antzokian eta Jalgin eskuragarri.

### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Otsailean zehar

Arantza Agirre donostiarraren olio lanak ikusgai izango dira.

### Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte 16, 18:30ean

Irakurle Txokoko kideek Danele Sarriugarte idazlearen laguntzaz Katixa Agirre gasteztarraren 'Atertu arte itxaron' liburua aztertuko dute.

### Hernani

### Inauteriak

HERRIAN ZEHA

Bihar, astearte, 18:30etik aurrera

Inauteriei amaiera emateko sardinaren ehorzketa egingo dute.

### Erakusketa

BITERI KULTUR ETXEA

Otsailak 18 ra arte

Txokolatearen inguruko argazki eta objektu erakusketa, Marisol Yabenen eskutik.

### Lasarte-Oria

#### Tailerra

VILLA MIRENTXU

Asteazkena, 18:30ean

Aniztasunari eta hizkuntzari buruzko tailerra. Helburua herritar bakoitzak gure herrian dauden hizkuntzekiko dituen portaerak aztertu eta hauen aurrean zer sentitzen duen jakitea da.

#### Lasarte-Oriatik Mundura

XIRIMIRI ELKARTEA

Ostirala 12, 17:30ean

Hitzaldi zikloko lehen saioa. Oihan Agirretzek Palestinan brigadista lana egiten bizitakoa azalduko du 'Palestina jo puntuan' hitzaldian.

OKENDO PLAZA

Igandea 14, 12:00etan

Palestinaren elkartasun ikur izango den olibondoa landatzeko irteera.

### Kultura Alternatiboa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Ostirala 12, 22:30etatik aurrera

Liherraldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da, baita Nabarro ta Lauraren umore eta dantza ikuskizunaz ere. Sarrera doan.

### 30. Urteurrena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 13, 18:30ean

Lasarte-Oria udalerrri gisa eratu zeneko 30. urteurrena ospatuko da. Lehenik

Julian Sagardiaren 'Lasarte 15 de Febrero de 1986' bideoa eskainiko da. Era berean, 'Gogoratzen duguna gara' diaporama musikatua berriro ikusteko aukera izango da. Julian Sagardiaren irudiei, Zero Sette akordeoi orkestrako lagunek musika jarriko diete.

Gonbidapena behar da. Otsailaren 8tik 14ra, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara jaso ahalko dira gonbidapenak Manuel Lekuona kultur etxean.

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 14, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Carlitos y Snoopy: La película de Peanuts' animazio filmaz gozatu ahalko da. Sarrera, 3,80 euro.

## Herritarren txokoa

### Eskutitza

#### Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasota ibilbideko paseoan, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean.

Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

#### Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jokasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

Inuxenteen eguneko albistea izan zitekeen, baina ez, dekretuaren data ondo begiratu eta ez zen inuxenteen eguneko, abenduaren 29koa baizik. Benetakoa da, beraz.

Aipatutako dekretuan 18.000 pasatxo dedikatzen dira Batzar Aretoko zinegotzien besaulkiak aldatzeko. Batz bestea 900 euro inguru besaulki bakoitzeko. 900 euro!!! Ez al da obszeno? Larrialdietaldirako emergentziatzako parakaidasa izango dute?

Ez, benetan, eta serio hitz eginda: egia da oraingo besaulkiak zaharrak direla, baina, hori al da lehentasuna? Hilabetean pare bat ordutan baino okupatzen ez ditugun besaulkiak aldatzea? Herri honek ez du 18.000 euro horiek gastatzeko beste behar handiagorik? Gure ustez, behar askoz larriagoak daude gure herrian, are gehiago bizi garen egoera ekonomiko eta sozial honetan. Horregatik, obszeno izateaz gain, gastu hau iraingarria iruditzen zaigu herritar askorentzat; langabezian daudenentzat, alokairua ordaintzeko arazoak dituztenentzat,

### Lehenengo lepotik burua... eta ipurdia?

oinarrizko beharrak behar den moduan asetzeko ekilibrioak egiten dituztenentzat, adibidez.

Politikarion duintasuna egiten dugun lan duin eta zintzoan datza, ez esertzen garen besaulkietan. Politikariorik burua eta bihotzarekin egin behar dugu lana, ez ipurdiarekin. Hala egin izan dugu guk, behintzat, aurreko lau urteotan. Horregatik, burutik ezta pasa ere ez zaigu egin halako gasturik egitea.

Egia esan, erabaki honetan behintzat, eta zoritzarrez, ez diogu koherentzia falta somatzen gobernu berriari. Ederki gogoratzen dugu aurreko gobernuak guri utzi zigun handiusteko herentzia. Alkatearentzat aurreikusita zegoen 60 m2-ko bulegoa, adibidez. Buelta eman genion, ordea, eta orain espazio hori erabilpen publikokoa da, hitzaldiak, aurkezpenak edo erakusketak egiteko. Horrek ez du kentzen une honetan alkateak oso bulego duina edukitzea, duina, xumea, apala. Harro gaude horretaz. Eta gogoratzen dugu, baita

ere, ze nolako gastua pentsatuta zuten udaletxe berriko mobiliarioa jartzeko: 900.000euro baino gehiago. Guk erdiarekin mobiliario xumeagoa baino duina jarri genuen. Eta horrek ez du udalak ematen duen zerbitzuan inongo kalterik sortu. Beste beharretarako dirua libratu bai, ordea.

Horregatik, besaulki bakoitzeko 900 euroena ikusi eta galdera, lehenengo lepotik burua? Ala urrezko lumak ikusi beharko ditugu berriro?

**Zuen oharrak jarri, kegak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858  
txintxarri@txintxarri.eus

Lasarte-Oriako EHBildu

# LUIS CAR

## autobusak



- Espainiako eta nazioarteko garratio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxes: 943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA

# Maite **B**ETELU



- ✓ Aseguruak
- ✓ Etxebizitzen administrazioa
- ✓ Gestoria
- ✓ Aholkularitza
- ✓ Inmobiliaria zerbitzua



Aralar plaza 4 behe, Lasarte-Oria • Tel. 943 36 48 86 • Faxes: 943 37 21 17 • [www.mbetelu.com](http://www.mbetelu.com)